

EUSKADIKO TOKI ERAKUNDEEI BURUZKO 2/2016 LEGEA
LABURPENA

1.- **Legearen helburua:** Toki erakundeen autonomia bermatu eta babestea, eta eskumen multzo bat aitortzea (1. Art.)

2.- Zerbitzuak, ahal dela, **udalerriek ematearen lehenespena.** (2. Art.)

3.- **Desjabetze ahalmena** Toki Entitateei esleitzen zaie. (2. Art.)

4.- Toki erregimenaren **printzipio honeek** onartzen dira: (4. Art.)

-**Subsidiariedade eta finantza nahikotasuna** (eskumenen egikaritzea herritarrengandik hurbilen lehenestea; sektoreka eskumen gehienak Toki Entitateen eskuetan ixtea; horretarako finantzaketa nahikoa bermatu beharko da).

-**Toki-autonomia:** Udalerriek, eragiten dieten arauen araugintza-prozesuetan aktiboki parte hartzeko eskubidea izango dute

-**Finantza-autonomia,** aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-jasangarritasun printzipioen barruan.

-**Autoantolaketa** printzipioa.

-Herritarrek tokiko **zerbitzu publikoetara iristeko berdintasuna.**

-**Solidaritatea eta ingurumen-jasangarritasuna.**

-**Herritarren partaidetza,** tokiko politikak formulatu, egikaritu eta ebaluatzeko prozesuen bidez.

-**Gardentasuna, etika publikoaren garapena eta gobernu onera** egokitzea.

-Emaku eta gizonen arteko **berdintasuna.**

-**Aniztasun politikoa eta inpartzialtasuna.**

-Tokiko ekintza publikoaren **efikazia eta efizientzia.**

5.- **Euskera, zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza** izango da, herritarren eskubideen kalte barik. Euskeraz burututako ekintzak eta dokumentuak beraz, ofizialtasun osoko edukiko dute, beti be toki entitatearen kideen eskubideak urratzen ez badira. Hirugarrenen eskubidea ezelako zama gehigarri barik bermatu beharko da. (6. Art.)

6.- **Euskera** sustatzea eta normalizazioa planifikatzea **Udal eskumena da.** Baita be ezagutza sustatzea eta erabilera dinamizatzea, bere eremuan izen ofizialak finkatzea eta toponimoen onarpena. Egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu eta plangintzen onespenean euskeraren erabileraren normalizazioan izan dezaken inpaktua ebaluatuko da. (7. Art.)

7.- **Kanpora kontratatzen diren zerbitzuetan,** toki entitateak bete beharreko **hizkuntza betebeharrak bermatu** beharko dira eta herritarren hizkuntza



eskubideak bermatu beharko dira. Hori dela eta hizkuntza irizpideak sartzeko Lege aukera egongo da Baldintza agirietan. (7. Art.)

8.- Aurrekontu-egonkortasun eta finantza-jasangarritasunaren barruan, udalek **autonomia osoa** daukate toki-interes publikoko gaian antolatu eta kudeatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko, politika propioa eta bereziak definitu, gauzatu eta aplikatzeko, eta baliabideen arabera lehentasunak ezartzeko. (9. Art.)

9.- Legediarekin bat eta gobernu ona, finantzen jasangarritasuna eta eraginkortasun eta efizientzia bermatzeko, udalek eskumenak baliatzeko beharrezko **antolamendu eta egiturak erabakiko dituzte**. (10. Art.)

10.- **Eskumenak**: Propioak, transferituak edo eskuordetuak izan daitezke. Propioak: legedian modu horretan aurreikusten direnak. Autonomia bermatzeko hauek izango dira ohikoak eta beste biak salbuespenak. (14-15. Art.)

11.- Udalek edozein jarduera, zerbitzu edo prestazio garatu ahal izango dute, herritarren interesean, beti be bikoiztasunik sortzen ez bada eta finantza-jasangarritasuna bermatzen bada (**unibertsalitate** klausula udalen alde). Kasu hauetan, finantzaketa udalen kontura izango da eta, doitze planik egon ezker, plan horretan jasotzen denaren arabera bakarrik burutu ahal izango dira. Unibertsalitate klausula hauen arabera zerbitzu berriak ezartzeko, txostena eman beharko da eta eskumendun administrazioek eta Foru Aldundiak txosten lotesleak emango dituzte. 17. Artikuluan jasotzen diren eskumenen kasuan, orain arteko finantzaketarekin egin beharko dira (ez finantzaketa gehigarria). (16. Art.)

12.- Udalei **Eskumen propioak legez edo foru arauz** izendatzen bazaizkie, **finantzaketa nahikoa** den baliabide-zuzkidura bidez bermatu beharko da. Berdin izango da lege garapenetan zerbitzuak, jarduera edo prestazioak esleitzen bazaizkie. (18. Art.)

13.- **Eskumenak transferentziaz edo eskuordetzeaz** be heldu ahal zaizkie udalei. Kasu hauetan **finantzaketa nahikoa** bermatu beharko da eta, **eskuordetzearen kasuan, homogeneousotasun printzipioa** aplikatuko da. (20.-24 Art.).

14.- **Udal antolaketan** berazitasun hauek jaso dira (25.-30. Art.):

-**Amatasun eta aitatasun eskubidea** onartzen da (legediak aurreikusten duen berdina) eta kasu horietan, batzorde informatibo eta Osoko Bilkuretako **botoa delegatzeko aukera** ematen da.

-**Hautetsien hizkuntza** ofizialetan jarduteko **gaitasuna** sustatuko da.

-**Alkateordetzak** sortu ahal izango dira, hauek "teniente de alcalde" figura ordezkatzeko dute.

-**Alkateek**, ordezkaritza-izaera edo ordezkaritza-kargu publikokoak ez diren eskumenak **zuzendari, zerbitzu-buru edo** gaitasun nahikodun **funtzionarioengan delegatu** ahal izango dituzte.



-**Tokiko Gobernu batzarrak publikoak** izango diren Osoko Bilkuraren erabakiz edo legez kontrakorik esaten ez bada, eta beti be herritarren ohorea, intimitatea eta irudi pertsonala errespetatuz. Publikoak izango dira osoko bilkurako eskumen delegatuak erabiltzen diren batzarrak eta lehendakariak baimentzen duenean, gaia erabakitzeko, pertsonen edo parte-hartzaileen presentzia egotea.

-**Batzorde informatiboak publikoak** izango dira Osoko Bilkurak gehiengo osoz hala erabakitzen duenean batez ere Osoko Bilkurarako diktamenak ematen direnetan edo gobernu-organoen kontrola egiten denean.

-Gai batzuk **sekretupekoak** izan ahal izango dira oinarrizko eskubideen babesa bermatzeko (Konstituzioko 18.1 artikulua). Kasu hauetan, grabaketak eteteko aginduko da.

15.- **Udal ordezkarien estatutua** (31.- 35. Art.):

-**Ordainsarien mugak** lurralde historikoko foru-organok zehaztuko ditu.

-1000 biztanletik gorako udalerrietan **alkatearen liberazioa** aurreikusten da, uko egiten ez badu.

-Osoko Bilkurak urteko **asistentziagatiko gehiengo kopurua** finkatu ahal izango du.

-10.000 biztanletik gorako udalerrietan **oposizioko zinegotzi baten liberazioa** bermatuko da.

-**Jokabide kode** propioa onartu edo beste batera atxikitzeko aukera egongo da, Osoko Bilkuraren erabakiz edo, bestela, Tokiko Gobernu batzarrarenaz. Udal-hautetsien atxikipena berariazkoa, indibiduala eta borondatezkoa izango da.

16.- **Zuzendaritza postuak:** Osoko Bilkurak erabakiko du, alkatetzaren proposamenaz, zuzendaritza-postuen egitura eta txertatuko diren arloak. Izendapena alkateari dagokio. Postu horietako titularrak karrerako funtzionarioak edo lan-kontratadun finkoak izango dira. Salbuespen moduan, alkatetzak proposatuta, Osoko Bilkurak erabaki ahal izango du enplegatu publikoak ez den pertsona izendatzea, beti ere graduko unibertsitate titulua edo baliokidea edukita. Zuzendaritza-postuetako profesionalek kargu publikotzat hartuko dira eta postu hauek deialdi publiko bidez beteko dira, nahiz eta hautaketa diskrezionala izan baldintzak bete eta izena ematen dutenen artean. (36.-42. Art.)

17.- **Udalerriko auzotarren eskubideak** (43. Art.): (hauteskunde legekoak ezik, erroldatutako atzerritarrei eta adingabeei be bermatuko zaizkie legedi eta ordenantzen arabera).

-**Hautesle eta hautagai izatea** legediarekin bat.

-**Parte hartzea:** Tokiko politika publikoen identifikatzean, prestaketan, kudeaketan eta ebaluaketan, herri arazoetan.

-**Ingurumen eta gune publiko egoki** eta jasangarriaz gozatzea.



- Ingurune irisgarriak izatea.
- Zerbitzu publikoak eta interes orokorreko zerbitzu pribatuak modu eraginkorrean eta berdintasunean eskuratzea, gizartean desabantaila duten pertsona, kolektibo eta taldeen kasuan bereziki.
- Udalerriko arrisku natural edo teknologikoen zein babes zibileko planei buruzko informazioa jasotzea.
- Kulturarako eta kultura ondareko ontasunetara iristekoa.
- Hizkuntza ofiziala aukeratzekoa.
- Aurreikusitako parte hartze baliabideak bermatzea.
- Tratu berdina jasotzeko eskubidea.

18.- **Udalerriko auzotarren betebeharrak eta erantzukizunak** (44. Art.): (bigarrena ezik udalerrian dauden pertsona guztiei aplikatuko zaie, eta Ordenantzak, politika publikoak, ordenantzetako arau hauste eta zigorrak, bizikidetzaren arauak eta zerbitzu publikoen emate arauetan kontutan edukiko dira).

-Araututako **prestazio ekonomiko, pertsonal edo garraiokoen** bidez, udal eskumenak gauzatzen laguntzea.

-Legeriak agindutako **errolako datu aldaketan berri ematea**.

-Tokiko **arauak bete eta aplikazioan lagundu**, arau-hausteetatik, zerbitzuak eragotzi edo zailtzen dutenaz edota arriskua suposatzen duenaz informatuz.

-**Ondarea, azpiegiturak eta zerbitzuak zentzuz eta egoki erabili, kontserbatze eta berreskuratzean lagunduz** (seinaleak eta herri altzariak barne).

-Espazio publikoan **bizikidetzaren arauak errespetatzea eta baita beste pertsonen eskubideak**.

-Ingurumena, espazio publikoa eta hiri-paisaia zaindu eta hobetzen lagundu, jarrera ekologiko eta jasagarriekin.

-**Efizientzia energetikorako politiken** eraginkortasun handiagoa bermatzeko **lankidetzaren**, eta ur, hondakin uren, arazketa eta sasterren zerbitzuen **efizientziarako jarraibideak** kontutan eduki.

-Hiri bideetako arauak bete eta baita beste sastarrak uzteko lekuak, egunak eta orduak.

-Lege eta ordenantzak aurreikusitako beste guztiak, bereziki gune publiko eta bizikidetzari buruzkoak.

19.- **Zerbitzu kartak**: zerbitzu kartak onartzeko ahalmena egingo da, ez dena derrigorrezkoa izango 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan. Udalerriek **zerbitzuen kalitatea bermatzeko, egiaztatze edo ebaluazio sistemen bidez** egingo dute eta, egon ezker, zerbitzu kartan jasoko dira. (45.-46. Art.).

20.- **Gobernu irekia**: Bitarteko hauen bidez bermatuko da (47. Art.):

-**Gardentasuna** sustatuz eta **Publizitate aktiboko betebeharrak** betez.

-**Informazio publikoa** eskuratzearen **betebeharrak** betez.

-**Informazio publikoa eskura jarri**, pribatutasuna, segurtasuna eta jabetasuna bermatuta.

-**Herritarren partaidetzarako tresnak eta bideak** jarri legediaren bat.



-**Arduradun publikoen kontu ematea**, gobernuak eginkizunak nola betetzen dituzten inguruan, abiarazten dituzten politika publikoei buruz eta baliabide publikoak nola burutzen dituzten informatuz.

21.-Gardentasuna eta herritarren parte hartzea: Udalak, bere Erakunde Autonomoek eta Berualak bete beharko dute. Erakunde eta antolamenduari buruz, informazio juridiko-normatiboaren gainean, Toki politika publikoen eta zerbitzu-karteraren inguruan, kudeaketa publikoari buruz, langileei buruz informazio ekonomiko-finantzario eta aurrekontuei buruz eta interes orokorreko informazioaren gainean, gutxienez zein informazio argitaratu behar den zehazten da. Gardentasunaren ataria eta kanal anitzeko sistemaren gutxiengoak arautzen dira. (48.-61. Art.)

22.- Informazio publikoa eskuratzea: printzipioak zehazten dira eta prozedura zehazten da, eta baita be betetze-mailari buruzko jarraipena egitea. (62.-66. Art.)

23.- Herritarren partaidetza: Partaidetzaren xedea, helburua eta zelan gauzatu arautzen da. Baita be Partaidetza prozesuen jarraipena eta ebaluazioa egitea. Parte hartze prozesuak, partaidetzazko debilerazio-prozesuak, partaidetzazko deliberaziorako erabakiak eta partaidetzako prozesuaren ekimena, garapena eta eraginkortasuna arautzen dira. (67.-77. Art.)

24.- Arau mailako xedapenak egiteko prozesuetako parte hartzea: Ordenantzak eta erregelamenduak onartzeko prozesuetako parte hartzea arautzen da. Baita be **udal aurrekontuetan** gastu publikoko konpromisoak erabakitzeke. (78.-79. Art.).

25.- Herritarren partaidetzarako tresnak jasotzen eta arautzen dira (80.-82. Art.):

- Herri galdeketak.
- Sektoreko edo lurralde-eremu mugatuetako galdeketak.
- Politika publikoei edo garrantzi bereziko erabaki publikoei buruzko toki-mailako herri-galdeketak.

26.- Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua eta Euskadiko Tokiko Gobernuen batzordea aurreikusi eta arautzen dira. Euren xedea, izaera, osaera eta eginkizunak jasotzen dira. Euskadiko Tokiko Gobernu batzordeak, **alerta goiztiarreko organo moduan** jardungo du be, eta zelan egingo duen xedatzen da (83.-91. Art.)

27.- Arautzen da be **Udallerrien eskumen propioei eragiten dieten xedapen orokorren aurreproiektuen prestaketan parte hartzea** zelan bideratuko den, eta Lurralde Historikoetako foru-organoek, **udallerriaren partaidetzako lurralde-organoak eratzeko** daukaten **ahalmena**. (92. Art.)



28.- **Tokiko Zerbitzu publikoen kudeaketa** (93.-100. Art.): Udalek autoantolaketa eta araugintzarako eskubide izango dute zerbitzu publikoak ematerakoan, beti be legediarekin bat. Zerbitzu publikoak kudeatzeko moduak hauek izango dira:

-Zuzeneko kudeaketa: Udalak berak emanda, erakunde publiko baten bidez eskainita (Erakunde Autonomia edo Enpresa-erakunde publikoa) edo Tokiko merkataritza-sozietate baten bidez, kapitala titulartasun publikokoa bada (azken kasu honetan kudeaketa mota hori jasangarriagoa eta errentagarriagoa dela justifikatzen bada).

-Erakunde publiko instrumentalen bidez (Doitze plana badago modu hau ez da izango posible, plana dagoen bitartean).

-Tokiko ekimena jarduera ekonomikoak gauzatzeko, beti be komenigarria eta egokia dela egiaztatuta eta aurrekontu-egonkortasuna ea finantza-jasangarritasuna bermatzen bada.

-20.000 biztanletik beherako udalerrietako nahitaezko gutxieneko zerbitzuen kudeaketa arautzen da, tokiko zerbitzu publikoen egiazko kostua arautzen da, eta baita be Udal eta toki mailako elkarlanerako sareak eta lankidetzak hitzarmenak.

29.- **Tokiko zerbitzu publikoak kudeatzeko bitarteko erakundeak arautzen dira** (101.-108. Art.):

-**Elkarte-oinarridun tokiko erakundeak** –mankomunitateak barne- (bai lurralde historiko bakar bati eragiten badiote eta baita be lurralde historiko edota autonomia erkidego bati baino gehiago eragiten badie).

-**Partzuergoak** (bai lurralde historiko bakar bati eragiten badiote eta baita be lurralde historiko edota autonomia erkidego bati baino gehiago eragiten badie).

-**Lurraldeen arteko lankidetzak egitasmoak.**

30.- **Toki Erakundearen finantzaketa** (109.-116. Art.).

-**Tokiko Ogasunak** arautzen dira.

-**Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko ogasunen jardunari buruzko printzipioak** jasotzen dira: Finantza-autonomia; Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-jasangarritasuna; Finantza-nahikotasuna; Baliabideen kudeaketa, jarduna printzipio batzuetara egokitzea (legezkotasuna, gardentasuna, objektibotasuna, ekonomia, eraginkortasuna, efizientzia, kontrola, kutxaren batasuna eta arrazionaltasuna). Jardunean be Euskadiko Ogasun Nagusiarekin eta lurralde historikoetako foru-ogasunekin koordinatuta, elkartasunez eta erantzukizunak banatuz egingo dute.

-**Printzipio orokorra, baldintzarik gabeko finantzaketa** izango da. Salbuespenak: Legediak aurreikusitako diru-laguntza politika jakin baten bitartez emandakoak, beti be printzipio batzuk jarraituta (toki-erakundearen parte-hartze printzipioa; Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioa; Zerbitzu publikoen efizientzia, efikazia eta kalitatearen printzipioak).

-**Udalerrien eskumen eta zerbitzu berriak** arautzen dira. (Finantza-baliabide nahikoak bermatu beharko dira).



-Eskubideak eskuratu, zertarako zehaztu eta preskribatzeko araubidea zehazten da.

-Betebeharrak eskuratu eta ondorioak izatea xedatzen da.

-Zorpetze-araubidea, aurrekontu-araubidea eta kontabilitate-araubidea zehazten dira.

-Toki-erakundeen plan ekonomiko-finantzarioak jasotzen dira.

30.- Udalerrietako eta gainerako toki-erakundeen finantzaketa (117.-121. Art.):
Finantzaketaren zehaztapenak atal hauetan banatzen dira:

-Itunpeko tributuen etekina.

-Lurralde historiko bakoitzean parte-hartzea zehaztea.

-Baliabideen aplikazioa.

-Likidazioa.

-Itunpekoak ez diren tributuetan parte-hartzea.

31.- Xedapen gehigarriak:

-**Toki araugintza ahalmena arautzen da:** Erregelamenduak, Ordenantzak, Alkatetzaren Dekretu eta jarraibideak, Bandoak (1.XG.)

-Zehapen-prozeduretan ipinitako **isunak, tokiko komunitatearen aldeko lan baliokideengatik ordezkatu ahal izango dira.** (2.XG.)

-**Federazioak eta elkarteak eratzeko ahalmena,** interes komunak babestu eta sustatzeko (eduki ditzaketen ahalmenak arautzen dira). (3.XG.)

-**Enplegu publikoaren eskaintza bateratuak egiteko aukera** arautzen da. (4.XG.)

-**Toki Administrazioako funtzionarioen gaineko eskumenak** banatzerakoan kontutan eduki beharrekoak aitatzen dira. Eusko Jaurlaritzaren lege garapena gauzatu arte, eskumenak orain arteko moduan mantenduko dira. (5.XG. eta 13. X.I)

-**Tributuak banatzeko irizpideak ezartzerakoan Udalen parte-hartzea** xedatzen da. (6.XG.)

-**Zuzendaritza-kide publiko profesionali ezarritako populazio mugak berraztertze**ko aukera jasotzen da. (7.XG.)

32.- Xedapen iragankorrak:

-**Udalerrien eskumen propioen esparru materialetan eskumenak nola baliatu zehazten da: legedi berria onartu bitartean, udalerriek ordura arte arautuko eskumenak mantenduko dituzte eta finantzaketa nahikoa dutela bermatuko da.** Legean aurreikusi eta oraindik garatuta ez dauden eskumenen kasuan, udalerriek euren kontura edo lankidetzaz hitzarmenen bidez garatu ahal izango dituzte (azken kasuan beharrezko baliabideak bermatuta). Finantzaketa nahikoa bermatzeko, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak azterketa bat egin beharko du urtebeteko epean. (1.XI.)

-**Eskumen-eremuari eta toki-finantziarioari buruzko azterlanetik eratorritako aurreikuspenak arautegian sartzea xedatzen da:** Aurreko azterketa amaitu arte, orain arteko lege xedapenak mantenduko dira. Azterketa eginda, lege berria idatziko da. (2.XI.)

-**Jarduera, zerbitzu edo prestazioekin jarraitzea:** Udalerriek lege sartu orduko garatzen zizuten jarduerak mantendu ahal izango dituzte, lege honetan



eskumen propio moduan agertzen ez dira ere, eta eskuordetu edo transferitutako eskumena izan gabe ere. (3.XI.)

-20.000 biztanletik gorako udalerriek, 4 urtetako epea edukiko dute Zerbitzu kartak onartzeko. (4.XI.)

-10.000 eta 20.000 biztanle bitarteko **udalerriek hiru urteko epea** izango dute **gardentasunari buruzko betebeharrak** guztiz **betetzeko**. (5.XI.)

-**Gardentasun ataria urte biko epean** gauzatu beharko da. (6.XI.)

-**Musika eskola, euskalategi eta Gizarte-larrialdiko laguntzen araubide iragankorra** xedatzen da. (7.-8.XI.)

-Lege hau indarrean sartu aurretik **eskumenak, zerbitzuak, jarduerak edo prestazioak esleitzen zituzten arloko legeen garapenean, finantzaketa egokia bermatu beharko da**. (9.XI.)

-**Euskadiko Tokiko Administrazioaren Erroldaren mantentzea** Tokiko Administrazioaren Erregistroa arautu eta funtzionamenduan jarri arte. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak hitzarmenak sinatuko ditu hiru foru aldundiekin. (10.-11.XI.)

-**Zuzendaritza-kide publiko profesionali aplikatu beharreko legedi iragankorra** zehazten da, arautegi espezifikoa onartu bitartean. (12.XI.)

33.- **Xedapen Indargabetzailea:** Lege honen kontrako xedapen guztiak indargabetzeaz gain, 326/1994 Dekretua (Euskadiko Udal Kontseilua), 364/1987 Dekretua (Toki-erakundeen ikur bereizgarriak) eta 271/1983 Dekretua (Udalerrien izenak aldatzeko prozedura).

34.- **Azken Xedapenak:** 27/1983 Legearen aldaketak (Euskal Autonomia Erkidegoa eta lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremanei buruzkoa) eta 3/1989 Legearen aldaketak (Zergapideen elkar-egokitasun, erakidetasun eta lankidetasuna) jasotzen dira; Legea garatzeko ahalmena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari eta **Legearen Indarrean sartzea zehazten da: 2016ko apirilaren 15ean**. (1-5.A.X.)



ERANSKINAK

UDALERRIEN ESKUMEN PROPIOEN ZERRENDA

17. artikulua. – Udalerrien eskumen propioak.

1.– Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak:

- 1) Babes zibila, emergentziak, eta suteen prebentzioa eta itzaltzea antolatzea eta kudeatzea.
- 2) Espazio publikoetan bizikidetzaz-harremanak antolatzea eta kudeatzea.
- 3) Titulartasun publikoko zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura eta instalazioen erabilera antolatzea eta kudeatzea.
- 4) Udaltzaingoa, trafikoa, bide-segurtasuna eta ibilgailuen aparkalekuak antolatzea eta kudeatzea, eta herritarren segurtasunean laguntzea.
- 5) Espazio publikoetan eta konkurrentzia publikoko leku eta establezimenduetan antolatutako ekintzetako segurtasuna antolatzea eta kudeatzea.
- 6) Konpainiako animalien eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien arloa antolatzea eta kudeatzea.
- 7) Etxebizitzaren plangintza, programazioa eta kudeaketa.
- 8) Ingurumenaren babesa eta garapen jasagarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta.
- 9) Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina.
- 10) Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea.
- 11) Erabiltzaile eta kontsumitzaileen defentsa eta babesa antolatzea eta kudeatzea.
- 12) Hilerrien eta hileta-zerbitzuen antolamendua, plangintza eta kudeaketa, baita osasun arloko kontrola ere.
- 13) Gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea.
- 14) Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.
- 15) Zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea hiri-erabilerako uraren ziklo integralean. Honako hauek daude barne hartuta: uraren goi-hornidura; uraren behe-hornidura; saneamendua edo biztanleguneetako hondakin-uren eta euri-uren biltzea, eta hiriko hondakin-uren arazketa.
- 16) Argiteria publikoa, bide-garbiketa, biztanle-guneetako sarbideak, kale-zoladura eta parkeak eta lorategiak antolatzea eta kudeatzea, eta zerbitzu horiek ematea.
- 17) Udal-hondakinak edo hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea, eta hondakin gutxiago sortzeko plangintza, programazioa eta diziplina ezartzea.
- 18) Bidaiarien hiri barruko garraio publikoa –garraiobidea edozein dela– antolatzea, planifikatzea, programatzea, kudeatzea eta sustatzea, eta horien inguruko diziplina ezartzea, betiere garraioa udalerraren barruan egiten bada osorik.
- 19) Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.
- 20) Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.
- 21) Udal-ondare historikoa babestea eta kontserbatzea, eta babes-plan bereziak eta katalogoak egitea eta onartzea.
- 22) Tokiko turismoa sustatzea eta kudeatzea.
- 23) Irakaskuntzaren programazioa egiten eta derrigorrezko eskolatzeko aldia betetzeko zaintzan parte hartzea, bai eta haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta hezkuntza bereziko ikastetxe publikoen eraikinak kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea ere. Era berean, hezkuntza-administrazioari laguntzea, ikastetxe publiko berriak egiteko behar dituen orubeak aurkitzea.
- 24) Zerbitzu-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.



25) Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo -politikak.

26) Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera.

27) Genero-berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzea.

28) Udal-ondarea kudeatzea eta ondare horren erabilera, zertarakoa, kontserbazioa eta mantentze-lana arautzea, betiere foru-araudiarekin bat.

29) Hondartza, laku eta mendietan egiten diren jarduerak eta erabilerak antolatzea, kudeatzea eta zaintzea, arlo horretan lurralde historikoek dituzten eskumenak eragotzi gabe. Hondartzetarako sarbideak antolatzea eta haien garbiketa-zerbitzua ematea.

30) Herritarren partaidetza, gardentasuna, gobernu ona bultzatzeko eta teknologia berriak eskueran izateko azpiegiturak antolatzea eta kudeatzea. Administrazio elektronikoa, prozesuen arrazionalizazioa eta sinplifikazioa. Batez ere, herritarrek informazioaren teknologiak eta komunikazioak modu efiziente eta jasangarrian erabil ditzaten bultzatuko dute, beren udal-mugartean.

31) Udallerriarenak diren herri barruko bide publikoak eta baserri-bideak antolatzea eta kudeatzea (kontserbatzea eta mantentzea barne).

32) Udallerriko bideetan, pertsona, ibilgailu –motordun zein bestelako– eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziplina-modua zehaztea; horretarako, beharrezko iritzitako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte.

33) Establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.

34) Barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Hor sartzan dira, era berean, txikizkako merkataritza eta merkataritzako ekipamendu handiak planifikatzea eta antolatzea, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzorua erabilerari erantzunez, bai eta ibilgailuak eta bestelako salgaiak espazio publikoetan salerostearen erregulatzea, ikuskatzea eta arlo horretako zehapen-ahalmena.

35) Immigrazio alorrean gizarteratze-politikak kudeatzea, atzerritartasunaren inguruko legeriarekin bat etorrira eta erakunde autonomikoekin lankidetzan.

36) Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

37) Garapenerako lankidetzaren alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

2.– Toki-autonomiaren printzipioa bermatze aldera, artikuluko honen lehenengo paragrafoan jasotako esparru materialen arloan eskumen propioak ematen dizkien Eusko Legebiltzarraren sektore-legeek edo, kasuan kasu foru-arauek aurreko paragrafoan materia bakoitzerako aurreikusitako ahalmenak babestuko dituzte. Udallerrientzat gordetako ahalmen horien edozein murrizketa egoki arrazoitu beharko da, subsidiarioritasun- eta proportzionaltasun-printzipioekin bat etorrira, eta arau bidez gauzatu beharko da beren-beregi.

3.– Nolanahi ere, legeek eta foru-arauek, udallerri eskumenak propio gisa esleitzen dizkietelarik, artikuluko honen lehenengo paragrafoan aurreikusitako udal-autonomiaren eremua zehazten duten ahalmenak handitu ahal izango dituzte, betiere, eskumen horien titular diren udallerrien finantza-nahikotasuna bermatuta, IX. tituluan eta eskumenak baliatzeari eta gaiaren araberrako finantzaketari buruzko berariazko araubideak arautzen dituen lege honetako xedapen gehigarrietan aurreikusten den eran.



PUBLIZITATE AKTIBO BIDEZ EMON BEHARREKO INFORMAZINOA

- ERAKUNDE ETA ANTOLAKETARI BURUZKO INFORMAZINOA:

a) Toki-erakundearen organoak, beharrezkoak eta osagarriak, honako hauek adierazita: beraien titularrak (osaera), horiek betetzen dituzten eginkizunak eta horiei aplikagarri zaizkien arauak. Era berean, publiko egingo dira organo bakoitzaren gai-zerrendak eta hartzen dituzten erabakiak.

b) Erakundearen eta haren gobernu-taldeetan ardura politiko gorena duten pertsonen buruzko informazioa, curriculumeko datuak barne.

c) Publiko egingo dira udaleko gobernu-plana, agintaldiko plana edo jarduera-plana, halakorik izanez gero, eta orobat, aldian-aldian, horien betetze-maila.

d) Alkatearen eta zinegotzien arduraldi-araubidea.

e) Erakunde bakoitzean behin-behinekoak diren lanpostuen zerrenda.

f) Toki-ordezkarien ondasun eta jardueren buruzko urteroko aitorpenak, indarrean dagoen legerian ezarritako eran.

g) Udaleko alderdi politikoen buruzko informazioa.

h) Toki-erakundeko arlo eta sailen antolamendu-egitura eguneratua; berariaz aipatu beharko dira zuzendaritzako edo erantzukizuneko lanpostuak, lanpostu horiek betetzeko zer profil behar den eta lanpostu horiek betetzen dituztenek zer ibilbide profesional daukaten.

i) Aholku-organok eta gizarte-partaidetzakoak, haien jardura eta erabakiak barne.

j) Edonolako erakunde instrumentalak, eta arduradun gorenak zein diren eta haien antolamendu-egitura zer-nolakoa den ere adierazi beharko da.

k) Antolamendu-egituren plan eta programak –beren xede zehatzak eta horiek gauzatzeko aurreikusitako baliabideak eta epea identifikatuz–, eta plan eta programon betetze-maila eta emaitzak, zeinak aldizka ebaluatu eta argitaratu beharko baitira, toki-administrazio eskudunak zehazten duen eran, neurketa eta balorazioko adierazleekin batera.

2.– Toki-erakundeek argitara emango dituzte, beren web-orri instituzionaletan eta informazio orokorreko gainerako medio propioetan, beren posta-helbidea, beren helbide elektronikoa eta erakundeak herritarrentzat dituen irispide orokorreko telefono-zenbakiak, eta adieraziko dituzte beren hautetsi-karguen eta zuzendaritza-karguen interakzio-moduak.

3.– Halaber, ezagutzera emango da zein kanaletatik eskaintzen diren herritarren arretarako zerbitzuak eta zein kanaletatik gauzatu daitezkeen herritarren parte-hartzea.

- INFORMAZINO JURIDIKO-NORMATIBOA:

a) Toki-erakundearen ordenantza, erregelamendu eta aurrekontuen proiektuak, beranduenera ere, hasierako onarpena eman eta berehala argitaratuko dira.

b) Publikoak izango dira, halaber, udal-organoen onartutako erabakiak, baldin eta zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badituzte.

c) Aholku-organoen txosten edo irizpenak ere publikoak izango dira.

d) Herritarren partaidetzako prozesuaren txostena eta ondorioak, halakorik baldin badago.

e) Hasita, martxan eta bukatuta dauden partaidetzako prozesuak. Eta bereziki, prozesu horiekin lotutako txostenak.

- TOKIKO POLITIKA PUBLIKOEN ETA ZERBITZU-KARTERAREN INFORMAZINOA:

a) Toki-erakundeek modu argi, irisgarri, ulergarri eta errazean zabalduko dute zer sartzen den herritarrei eskaintzen dieten zerbitzu-zorroan, eta berariaz zehaztuko dute zer ondasun eta prestazio eskaintzen dituen toki-erakundeak eta horien kostua zenbatekoa den, bai osotara eta bai pertsona bakoitzeko.

b) Era berean, publiko egingo dituzte zerbitzu-kartak edo pareko dokumentuak, eta, halakorik badute, zerbitzuen kalitatea ziurtatzeko edo egiaztatze prozesuak.

c) Eskaintzen den zerbitzu bakoitzari buruz ordutegia eta ordaindu beharreko prezio publikoak edo udal-tasak zehaztu beharko dira.



d) Gainera, informazio agregatua, laburra eta argia eskainiko da honako zerbitzu hauen gainean:

- 1.– Mantentze-lanak eta obrak
- 2.– Segurtasun publikoa eta babes zibila
- 3.– Hondakinen bilketa eta tratamendua
- 4.– Uraren kudeaketa
- 5.– Kale-garbiketa
- 6.– Ekonomia-jarduerak eta lizentziak
- 7.– Hirigintza eta ingurumena
- 8.– Kultura eta kirolak
- 9.– Gizarte-zerbitzuak
- 10.– Emakumeen eta gizonen berdintasuna

- KUDEAKETA PUBLIKOAREN GANEKO INFORMAZINOIA:

a) Kontratu guztiak publikoak izango dira, honako hauek adierazita: xedea, iraupena, lizitazio-eta esleipen-zenbatekoa, zein prozeduraren bidez egin den, zein bitartekoren bidez iragarri den, prozeduran parte hartu duten lizitatzailleen kopurua, esleipendunaren nortasuna, eta kontratuaren aldaketak eta luzapenak. Kontratuetan atzera egiteko eta kontratuari uko egiteko erabakiak ere argitaratu egin beharko dira.

b) Datu estatistikoak sektore publikoko kontratuen legedian aurreikusitako prozeduretako bakoitzaren bidez esleitutako kontratuek aurrekontuaren gainean hartzen duten ehunekoari buruz.

c) Ezarritako zigorrak, hala badagokio, kontratisten ezbetetzeengatik.

d) Suntsiarazitako kontratuen zerrenda. Bereziki, publiko egingo dira kontratuetan atzera egiteko eta uko egiteko erabakiak.

e) Kontratu txikiak hiru hilabete behin argitaratuko dira, modu agregatuan, eta argitaratzen direnetik gutxienez 12 hilabetez emango da horien berri.

f) Sektore publikoko kontratuei buruzko legerian aurreikusitako prozedura bakoitzaren bidez esleitutako kontratuek aurrekontuaren gainean zenbateko ehunekoa hartzen duten adierazten duten estatistika-datuak argitaratu egingo dira.

g) Sinatutako hitzarmenen zerrenda, honako hauek adierazita: sinatzaileak, xedea, iraupena, aldaketak, prestazioak eta adostutako betebeharrak ekonomikoak –halakorik baldin badago–.

h) Sinatzen diren kudeaketa-gomendioak ere argitaratuko dira, honako datu hauek adierazita: xedea, aurrekontua, iraupena, betebeharrak ekonomikoak eta azpikontratazioak, berriaz aipatuz esleipendunak, esleipena egiteko jarraitutako prozedura eta esleipenaren zenbatekoa.

i) Emandako diru-laguntza eta laguntza publikoak: zenbatekoa, xedea edo helburua, eta onuradunak.

- LANGILEEI BURUZKO INFORMAZINOIA:

a) Publiko egingo dira enplegu publikoaren eskaintzak, zenbateraino bete diren, eta funtzionario eta lan-kontratupeko langileentzako hautaketa-prozesuak –deialdiak, eta izendapenera arteko edo kontratua sinatu arteko egintza guzti-guztiak barne–.

b) Toki-administrazioek edo beste erakunde mota batzuek emandako ikastaro eta prestakuntza-programak.

c) Sindikatu-ordezkaritzako organoak osatzen dituzten kideak eta horretarako liberatuta dauden pertsonen kopurua, berriaz aipatu beharko delarik zer ordu-kreditu duten.

d) Lanpostuen zerrendek taula sinoptiko bat jaso beharko dute, non, kategoriaren arabera ordainsari indibidualizatua jartzeaz gainera, antolamendu-tresna horren elementu garrantzitsuenak laburtuko diren.

e) Bateragarritasun-adierazpenen arloan eskumena duen organoaren ebazpenak.

- INFORMAZINO EKONOMIKO-FINANTZARIO ETA AURREKONTUARI BURUZKOA:

a) Toki-erakundearen aurrekontuak argitara emango dira osorik eta eguneratuta, modu erraz, argi eta grafiko batean, partida nagusiak deskribatuz dira eta informazio zehatza emanez



beraien exekuzio-maila ezagutzeko eta ekitaldian zehar onetsitako aurrekontu-aldaketak jakiteko.

b) Argitaratu beharreko urteko kontuak, eta kanpo-kontrolako organoek horiei buruz egiten dituzten kontu-auditorien eta fiskalizazioen txostenak.

c) Aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako helburuak betetzeari buruzko informazioa.

d) Diru-sarrera eta gastuei buruzko oinarritzko informazioa.

e) Hornitzaileen ordainketaren arloko berankortasunaren gaineko legeria betetzeko epeak.

f) Ondareko ondasun higiezinaren zerrenda, hala bere jabetzakoak direnena nola haien gaineko eskubide errealeen bat duenena.

g) Kontzeptu guztiak hartuta toki-erakundeko ordezkari politikoek eta zuzendaritzako langileek jasotzen dituzten ordainsariak, eta kargua edo eginkizuna utzi ostean jasotzen dituzten kalte-ordainak –halakorik izanez gero–.

- INTERES OROKORREKO INFORMAZIOA:

1.– Herritarrentzako interesekoa den informazioa ere argitaratuko da, ahaztu gabe betiere dagokion arautegi espezifikokoak ezarritako informazio-betebeharrak.

2.– Ezagutzera emango dira herritarren arretarako eta partaidetzarako zerbitzuak eskaintzeko dauden kanalak.



INFORMAZINO PUBLIKOA ESKURATZEA

- PRINTZIOPIOAK:

1.– Pertsona fisikoek, pertsona juridikoek, erakundeek eta lege honetan ezarritakoaren arabera eraturako plataforma eta sareek eskubidea izango dute –arrazoitu beharrik gabeko eskubide bat aurkeztuta– informazio publikoa eskuratzeko, eta eskubide hori gauzatu da arlo hau arautzen duen gardentasunaren oinarriko legerian ezarritako eran eta lege honetan eta kasuan kasuko udal-erregelamenduetan aurreikusitakoarekin bat.

2.– Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeari dagokionez, gardentasunaren oinarriko legeriak ezartzen dituen mugak era murriztailean interpretatuko dira, eta, betiere, lehendabizi ebaluatu beharko dira, alde batetik, aipatzen diren interes publiko eta pribatuari eragindako ustezko kalteak, eta, bestetik, eskatutako informazioa zenbateraino den garrantzitsua edo adierazgarria, eta zenbateraino den beharrezkoa, objetiboki, gobernuaren ekintzaren kontrol demokratikoa egiteko.

3.– Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea –toki-botere publikoen eta erakunde horien arduradun publikoen kontu-ematearen kontrol demokratikorako beharrezko den aldetik– antiformalismoan eta garapen-samurtasunean oinarritutako prozeduren bidez baliatuko da; eta, edonola ere, eskubide hori berariaz ukatzen denean –gardentasunaren oinarriko legerian aurreikusitako mugak aplikatzearen ondorioz edo datuen babesaren inguruko legeriaren arabera datu pertsonalei zuzenean eragiten dielako–, orduan, arrazoibideak oinarri sendoagoak izan beharko ditu.

4.– Eskuratu nahi den informazio publikoan datu pertsonalak agertzen badira, informazio publikoa eskuratzearen inguruko araudia aplikatuko da, salbu eta datu pertsonal guztiak informazioa eskatu duenari buruzkoak badira. Informazioa eskuratzea onartzen bada, informazioa oso-osorik eskuratu ahal izango da.

5.– Bereziki babestutako datu pertsonalak eskuratu nahi direnean, datuak babesteko legerian aurreikusitakoari men egingo zaio.

6.– Informazio-eskaera organoaren antolamendu, funtzionamendu edo jarduera publikoari buruzkoa denean, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari emango zaio lehentasuna.

7.– Gainerako kasuetan, eskatutako informazioan bereziki babestu beharreko daturik agertzen ez denean, informazioa inoren esku jarri aurretik, haztatu egingo dira –behar bezala arrazoituta– informazio publiko hori zabaltzeak duen interes publiko eta ukitutako pertsonen eskubideak, batez ere datu pertsonalak babesteko duten funtsezko eskubidearen ingurukoak. Haztapenerako, gardentasunaren oinarriko legerian ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan.

8.– Nolanahi ere, aurreko paragrafoetan xedatutakoa ez da aplikatuko, baldin eta toki-erakundeak datu pertsonalak disoziatzen baditu, aurretik, eta ezinezkoa gertatzen bada ukitutako pertsonak zein diren identifikatzea.

9.– Publizitate aktiboaren printzipioari jarraiki informazioa dagoeneko eskatzailearen eskura dagoenean, horren berri eman ahal izango zaio eskatzaileari, eta informaziora zein bidetatik irits daitekeen adierazi.

10.– Informaziorako irispidea doakoa da. Nolanahi ere, posible izango da tasak jartzea, toki-ogasunei buruzko foru-arautegiaren bat etorritz, kopiak egiten direnean edo informazioa jatorrizkoa ez den beste formatu batera aldatzen denean. Nolanahi ere, tasa horien zenbatekoa ezingo da izan Administrazioarentzako kostu erreala baino handiagoa.

11.– Eskatutako informazioak, berez eskatu den edukiaz aparte, legerian jasotako salbuespenetakoren batean sartzen den informazioa ere jasotzen badu, bereizi egin beharko da, eta irisgarritzat jotzen den informazioa soilik eman.

12.– Bukatuta dauden espedienteak irispide libreko informazio publikotzat joko dira: edozein herritarrek eskuratu ahal izango ditu, interesdun izan beharrik gabe.

- EPEA: Ebazpena emateko epea hilabetekoa izango da, beste hilabetegatik luzatu ahal izango dena eskariaren konplexutasuna kontutan edukita. Luzapen hori eskaria egin eta lehenengo 10 egunetan jakinaraziko zaio eskatzaileari.



Orokorrean, informazioa ebazpenarekin batera bidaliko da eta, horrela egin ezingo balitz, informazioa noiz eta nola emango den jasoko da ebazpenean (beti 10 eguneko epearen barruan).

- INFORMAZIOA NOLA EMAN:

1.- Oro har, eskatzaileak aukeratutako modu eta formatuan emango da eskatutako informazio publikoa; eta ezer esan ez badu, bitarteko elektronikoz egingo da, ahal den guztietan.

2.- Hala ere, eskatzaileak aukeratutakoak ez diren modu eta formatuan eman ahal izango da informazioa kasu hauetan:

a) Informazioa dagoeneko argitaratuta dagoenean eta erraz eskura daitekeenean, horrelakoetan nahikoa izango baita ebazpenean adieraztea nola eskura dezakeen.

b) Informazioa gordetzen den lekuan eskuratzeko jatorrizko euskarria galtzea edo hondatzea ekar dezakeenean.

c) Kopia aukeratutako formatuan egitea ezinezkoa denean, ez dagoelako ekipamendu teknikorik eskura.

d) Informazioa aukeratutako modalitatean ematea jabetza intelektualerako eskubidea urratu dezakeenean.

e) Beste modu edo formatu batean ematea errazagoa denean, edo merkeagoa altxor publikoarentzat.

- BETETZE MAILAREN JARRAIPENA:

1.- Urte naturaleko lehen hiruhilekoan, txostena egingo da publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen inguruko betebeharrak aurreko urte naturalean zein neurritan bete diren jakiteko.

2.- Txosten horrek ondorengo alderdi hauek aztertu eta azalduko ditu, gutxienez:

a) Udalak eta 47. artikuluan aipatutako bere menpeko gainerako subjektuek zein neurritan bete dituzten publizitate aktiboko euren betebeharrak.

b) Gardentasunaren atarian kontsulta gehien izan dituzten edukiak.

c) Informazio publikorako sarbidea izateko eskubidearen erabilera: zenbat eskaera aurkeztu diren; zenbat eskaera ebatzi diren; batez beste zein epetan ebatzi diren; zenbat eskaera onetsi diren oso-osorik, zenbat zati batean, eta zenbat beste pertsona bat aurka egonda; zenbat eskaera ezetsi diren, eta zenbat ez diren onartu; zati batean edo beste pertsona bat aurka egonda onesteko arrazoiak, ezestekoak, eta ez onartzekoak; maizen eskatutako informazioa; eta eskatzailearen profila (adin-tartea, sexua, eta eskaeran erabilitako hizkuntza).

3.- Egindako txostena publizitate aktiboari dagokion informazio guztiarekin batera argitaratuko da.



HERRITARREN PARTE HARTZEA

- PARTE HARTZAILEAK:

- a) Kasuan kasuko udalerrian erroldaturik dauden pertsonak, salbu eta legeak, izaera politikoz, euskal herritar izatea exijitzen badu eta, beraz, hautesle-eroldan inskribatuta egotea.
- b) Udalerrian bizi diren pertsonak, nahiz eta aldi baterako izan, lege honetan adierazten den eran.
- c) 18 urte baino gutxiagoko eta 16 urte baino gehiagoko pertsonak, lege honetan ezarritako eran soil-soilik.
- d) Herritarren partaidetzako erakundeen erregistroan gobernu-maila bakoitzean inskribaturik dauden eta irabazi-asmorik ez duten erakunde, elkarte, gizarte-antolakunde edo taldeak.
- e) Elkarrekin, fundazioak, sindikatuak, enpresa-elkarrekin, elkargo profesionalak, zuzenbide publikoko korporazioak edo ordenamendu juridikoaren arabera nortasun juridikoa duten bestelako erakundeak.
- f) Herritarren plataforma, foro edo sareak, egoera jakin baterako sortu direlako nortasun juridikorik ez badute eta, betiere, lege honetan jasotako eskakizunak betetzen badituzte. Herritarren plataforma, foro edo sare horiek bertualak ere izan ahalko dira.
 - .- Lege honetan ezarritakoa gorabehera, udal-erregelamendu, -ordenantza edo -erabakiek herritarren parte-hartzea gauzatzeko modalitateak artikulatuko dituzte.
 - .- Partaidetzako prozesuetan ahalegina egingo da gizon eta emakumeen parte-hartzea parekidea izan dadin eta aztergai diren kontuetan genero-ikuspegia txerta dadin.

- Herritarren partaidetzako erakundeak eta herritarren partaidetzako erakundeen erregistroa arautzen ditu legeak, baita be herritarren parte hartzeko prozesuen jarraiketa, herritarren partaidetzaren ebaluazioa.

- PROZESU MOTAK:

✓ Herri galdeketak:

- 1.- Toki-araubidearen oinarriko legeriarekin bat, alkateak, osoko bilkurak gehiengo osoz hala erabaki ondoren eta Estatuko gobernuaren baimenarekin, herritarren edo komunitatearen interesentzat garrantzi handia daukaten gaiak buruzko iritzia galde diezaioke herriari, baldin eta gaiak udalaren eskumenekoak eta toki-administrazioaren ingurukoak badira. Tokiko araubideari buruzko legerian debekatuta dauden eremuetako gaiez, ordea, ezin izango da galdeketa egin. Prozedurak, baldintzak eta bermeak erregelamendu bidez ezarriko dira, lege honetan ezarritakoaren arabera.
- 2.- Udalerraren araugintzarako ahalaren bidez, eta lege honetan aurreikusitakoarekin eta erregelamenduetan ezartzen denarekin bat, galdeketa horiek nola baliatu garatuko da.
- 3.- Alkateak egingo ditu mota horretako herri-galdeketaarako deialdiak, osoko bilkurak hala erabaki ondoren. Osoko bilkuraren erabakian honako alderdi hauek jasoko dira gutxienez: galdeketa-gai den xedapen, politika edo erabakia publikoaren testu osoa, galdeketa-gai diren itaunak eta galdeketa noiz egin behar den. Galdeketa-deialdia kasuan kasuko lurralde historikoaren buletin ofizialean argitaratu eta hurrengo 90 egun eta urtebete artean egin beharko da.
- 4.- Udal-talde politikoen ekimenak gorabehera, lehenengo paragrafoan aipatzen diren herri-galdeketa eskakizunak osoko bilkuraren oniritzipean jarri beharko dira, abiapuntua herritarren ekimena izan bada. Udalerrian 5.000 biztanle baino gehiago baditu, erroldatutako auzotarren % 10ek, gutxienez, sinatu beharko dute ekimena, eta 5.000 biztanle edo gutxiago baditu, auzotarren % 20k. Hori eginez gero, udalak tramitea emateko prozedura irekiko du eta prozedura zehaztuko.
- 5.- Salbuespen gisa eta galdeketa-prozesuaren gaiaren arabera, udalerrian bizi diren atzerriarrek eta bozketa hasten denean gutxienez 16 urte duten adin txikikoek ere hartu ahal izango dute parte. Horrelakoetan, boto-emaitzen errolda biztanleen udal-



erroltarekin osatuko da, eta toki-erakundeko idazkaritzaren ardura izango da egokitzapen hori egitea.

6.– Kontsulta horiek lotesleak izango dira, betiere ez baldin badago lege-arauren bat kontsulta osorik edo zati batean egitea eragozten duena.

✓ **Sektoreko edo lurralde-eremu mugatuetako galdeketak.**

1.– Udalerriek, gaiaren edo xede duten lurralde-eremuaren arabera, herritarren zati bati bakarrik bideratutako galdeketa bereziak egin ahal izango dituzte.

2.– Sektoreko galdeketatzat hartzen da arazo jakin bati buruz egiten dena eta herritarren zati bati bakarrik edo udalerriko biztanleen zati bati bakarrik eragiten diona.

3.– Lurralde-eremu bateko galdeketatzat hartzen da udalerriarren zati batean bakarrik egiten dena, dela auzo batean, dela toki-erakunde txiki batean, dela udal-barruti batean.

4.– Galdeketa horietarako deialdia egitea alkateari dagokio, behin osoko bilkurak gehiengo osoz onartu ondoren.

5.– Galdeketa horietan, gaiaren arabera, udalerrian errolaturiko atzerritarrek eta 16 urtetik gorako adin txikikoez ere hartu ahal izango dute parte.

6.– Udalerriek –ordenantza, erregelamendu edo, halakorik izan ezean, osoko bilkuraren erabaki bidez– bozketari, zenbaketari eta prozesuaren kontrolari eragiten dieten prozedurazko alderdiak ezarri ahal izango dituzte, bai eta izaera teknikoko beste kontu batzuk ere.

7.– Edonola ere, prozesu horietan aniztasun politikoaren eta inpartzialtasunaren printzipioak errespetatzen direla eta botoa berdintasun-baldintzetan emateko eskubidea zaintzen dela bermatu beharko da. Alkatearen eskumena izango da printzipio horiek guztiz errespetatzen direla zaintzea eta prozesuak behar bezala burutzen direla bermatzeko neurriak hartzea.

8.– Prozesu horietako bozketa-sistema –paperezko botoa edo sistema elektronikoa– dagokion toki-erakundeak erabakiko du, zeinak bere biztanleriaren eta eremuaren ezaugarriak kontuan izanik hartuko baitu ebatzia. Toki-erakundeak erraztasunak eman beharko ditu parte hartzeko eskubidea duen pertsonak orok behar adina bermerekin parte har dezan.

9.– Toki-erakundeko idazkaritza izango da prozesu horiek taxutzeko organo eskuduna, eta organo horrek emango du ateratako emaitzen fede.

✓ **Politika publikoei edo garrantzi bereziko erabaki publikoei buruzko toki-mailako herri-galdeketak.**

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek politika edo erabaki publikoei buruzko toki-mailako herri-galdeketa irekiak egin ahal izango dituzte.

2.– Galdeketa horiek bozketa bidez burutuko dira, baina botoa emateko epea 15 egunera artekoa izan ahal da. Osoko bilkuraren erabaki arrazoituaren bidez erabakiko da egun horiek segidakoak izan behar duten ala ez.

3.– Deialdia egiten duen toki-erakundeak, bere biztanleriaren eta lurraldearen ezaugarriak kontuan harturik, erabaki ahal izango du paperean, sistema telematiko edo bi moduetara egitea bozketa, eta erabilgarri dituen baliabide guztiak jarriko ditu ziurtatze aldera parte hartzeko eskubidea duen pertsona orok bere ikuspuntua berme guztiekin adierazi ahal izatea.

4.– Galdeketa horietan, gaiaren arabera, udalerrian errolaturiko atzerritarrek eta 16 urtetik gorako adin txikikoez ere hartu ahal izango dute parte.

5.– Galdeketa gaia udalerriarren eskumeneko politika publiko, erabaki edo kontuetara mugatuko da. Ezin izango da galdeketa egin diru-sarrerara publikoekin lotuta dauden alderdiei buruz, salbu eta galdeketak hizpide baditu tokiko tributuei dagozkien udal-eskumeneko alderdiak.

6.– Ordenantzak eta erregelamenduak onartzeko prozesuetan, posible izango da horrelako galdeketak egitea jendaurreko informazioaren aldiaren.

7.– Udal-ordenantzek edo -erregelamenduek edo, halakorik izan ezean, osoko bilkuraren erabakiek bozketari, zenbaketari eta prozesuaren kontrolari eragiten dieten



prozedurazko alderdiak ezarriko dituzte, bai eta izaera teknikoko beste kontu batzuk ere.

8.- Galdeketetako emaitzek ez dute, inolaz ere, izaera loteslerik izango toki-gobernuarentzat. Nolanahi ere, azken erabakia galdeketa irekian ateratako emaitzetatik aldentzen bada, berariaz arrazoitu beharko da zerk eragin duen erabaki hori.

